

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 23a / 569. zenbakia



ODOLA
EMAN,
BIZIA
EMAN

Bergarako
odol emaleek
beste kanpaina
bati ekin diote

UBERA: SAN PAULO JAIK ASTEBURUAN/7 • KIROLGUNE BERRIA: MARTXOAN HASIKO DIRA LANAK/10

BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

ATREBENTZIAEZPADA/ Udalak garabi zerbitzua jarriko dau hille bukaerarako. Ze pentsatzen jatzu?



LIDE OREGI
22 urte



MARTIN KORTABARRIA
79 urte



MARI KRUIZ ARREGI
68 urte



RAMON MENDIBIL
61 urte



ESPE ARRIARAN
44 urte



IGOR LOITI
34 urte

Ondo pentsatzen jat. Auto asko egoten da traban, eta horrek kentzeko garabixa egotia ondo ikusten dot. Askotan tokatzen da bigarren illaran auto bat topatzia eta norberana ezin etaratzia.

Ez jat ondo pentsatzen. Udaltzaiñek egin deixiela ondo lana, eta hala ez litzake garabi biharrik egongo. Gaiñera, uste dot kanpokuak kaltetuko dittuala batez be garabixak.

Igual premiñazkua izango da, baiña aparkalekuak be ez dare asko. Lehenengo ipiñi daixiela nun aparkau eta gero ipiñi daixiela garabixa, traban daren automobillak kentzeko.

Aparkaleku gehixau bihar diela uste dot. Garabixa nahiko irtenbide eskasa da. Bestalde, automobilla erabiltzen dogunok gutxiu erabiltzeko kontzientziau biharko giñake.

Oso ondo. Automobil ugari egoten die espaloï gainian lagata. Guria ez da oiñezkuendako herrixa, ez dago hala pentsauta. Bestalde, automobilla gutxiu erabiltzen ikasi bihar giñuke.

Alde batetik, ondo; auto ugari egoten dalako bigarren illaran lagata. Besteik, gaizki. Izen be, ez dago aparkaleku nahikorik, eta hori ere kontuan hartzekua eta konpontzekua da.

TXALOKETATXISTUAK



TXISTUAK SANTA ANARAKO SARRERA BERRIA Santa Ana parakerako sarrera berria egin dute. Eskailera eta plazatxo oso dotorea egin dituzte sarrera gisa. Halaxe esan du irakurle batek, baina badu kexua. Esan duenez, plazaren ingurua zuloz eta putzuz beteta dago. Beraz, nahiago izaten du sarrera berri hori ez erabili, plazako zorua laga eta hurrengo zapaltzen dena lokatza da-eta. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

Odol emaileak gorako bidean

Bergarako Odol Emaileen Elkar-tea 1967an sortu zuten. Iaz ere emaitza bikainak lortu zituzten.

KIROLA / 11

Logotipo lehiaketa

Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa iragartzeko logotipo lehiaketa deitu dute herriko ikasleen artean.

KULTURA / 12

Amodiozko gutunak

Gutun lehiaketan 111 lagunek hartu dute parte. SMS bidezko amodiozko mezuetan, berriz, 33 lagunek.

IRAKURLEAKMINTZO

ESKERRIK ASKO, EMANDAKO LAGUNTZARENGATIK

Pasatu berri diren Gabonetan presoan alde jaso dugun laguntza guztia dela eta, Etxerat taldearen izenean esker-erak eman nahi dizkiegu gurekin lanean jardun duten guztiei: den-dei, tabernei, jatetxeei, elkartei eta euren laguntza eskaini diguten gainerako herritar guztiei ere bai.

BERGARAKO ETXERAT

BESTEKEESANA

“Jokatzeraz atera-tzeagatik ez dut uste entrenatzaileak atentzioa deitu nahi izan didanik. Nik ez dut hala interpretatu. Entrenatzailearen erabakia izan zen uste izan zuelako beste batek jokatu behar zuela. Den moduan hartu dut. Egin dezakedana da entrenatzen segi.
AGUSTIN ARANTZABAL /
Realeko jokalaria
‘El Diario Vasco’/04-01-15

“Besteak beste, Bach-en, Urteagaren, Otañoren, Mozart-en eta Mendelsonen konposizioak

daude... Oso pieza entzungarriak dira eta organoen kalitatea dela-eta, ikaragarri ondo soinu egiten dute.
IÑIGO ALBERDI /
Organo zikloko antolatzaileetako bat
‘El Diario Vasco’/04-01-17

BERAIEKDIÑOË/ Jon Suinaga



Hurrengo geltokia... itxaropena

Idazterakoan, kritikatzeko gauza politikak kontatzea baino askoz errazagoa da. Munduan hainbeste injustizia daude eskua sartzeko... Baina beno, zelan esperantzaz beteta dagoen urte berri baten aurrean gauden eta idazterakoan kexati bat naizela leporatu didatenez, kasu honetan zintzoa izango naiz eta artikulu honetan bakarrik gauza itxaropentsuak kontatuko ditut (behintzat saiatuko naiz).

Joan zen urteko herri hauteskunde-en emaitzak erreparatu, gure alkate eta bere talde politikoa zoriontzen hasiko naiz, irabazleak izateagatik. Ez dut uzte haren gestioa arrakasta hori lortzeko izan denik, baina emaitzak ikusi eta gero, gauza onak ere egingo zituztela suposatzen da. Aralar taldeari, zorionak eta ongi etorri. Besteik, eskerrik asko parte hartzeagatik, aukera izan duzuenoi. Eta faxisten legeekin kanporatuta zaudetenak, animu eta aurrera, zuei lapurtutakoa erreperatu arte.

Mila esker, Jose Maria Aznar... Joateagatik! Zure lagun minak, Bush-ek, base finko bat ilargian ezarri nahi du. Eskatu esaiotzu, mesedez, hango agintaria izatea zure fidelitasunaren ordainean. Eta bera zurekin joaten bada eta han gelditzen bazarete... hobeto!

“Zure lagun minak, Bush-ek, base finko bat ezarri nahi du ilargian. Eskatu esaiotzu hango agintari izatea”

Hatzak gurutzatzen ditut martxoko hauteskundeetan Euskal Herria garaile izateko. Beste aldetik, ea PSOE azkartzen den, zeren eta PPren beste gehiengo absolutua bat sekulako katastrofea izango litzateke.

AHT eta Euskal Y-ari buruz, eskaera bat gure agintarietara: herriari entzun eta proiektua gelditu. Badaude alternatiba askoz eramangarriagoak 1839 urtea: Bergarako besarkada; Euskaldunendako gertakizun historiko tristea. 2003 urtea: Bergarako proposamena; euskaldunon ametsa, euskaldun guztiak bat eginik. Gure herriko izena berreskuratzen!

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elempuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzakoa
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 23**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ZAPATUA, 24**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- DOMEKA, 25**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 26**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- MARTITZENA, 27**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 28**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 29**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK. 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30. |
| Santa Marina
Domekak: 11:00, 13:00.
Zapatuak: 19:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Antzuola
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | San Juan
Domekak: 11:00. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1956AN JAIOTAKOEN AFARIA URTARRILAREN 31N
1956an jaiotako bergararren afaria urtarrilaren 31n Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik Frontoiaren elkartuko dira, 19:30ean, eta taldeko argazkia aterako dute, 20:15ean. Afaria musikaz lagundutakoa izango da. Izenematea urtarrilaren 25era arte Azpeitxi jatetxean, 943 76 55 00 telefono zenbakian.

IKASTAROAK KZGUNEAN
KZguneak herritar guztientzako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

IRUDIKO ZOZKETA
Irudi erlojutegiak Gabonetan egindako zozketan, 2.021 izan da saritutako zenbakia.

ARCOIRA IRTEERA
Beart herriko artisten elkarteak Madrilera, Arco feriara, joateko irteera antolatzen du. Otsailaren 13an (egubakoitza) aterako dira, eta domeka arratsaldean itzuli. Gran Viako hotel baten egingo dute egonaldia, logela bikoitzetan, eta lagun bakoitzeko prezioa 150 eurokoa izango da. Argibideak eta izenematea 635 71 32 69 telefono zenbakian. Horren harira, izena lehenbailehen ematea komeni da, gestioak denboraz egin ahal izateko.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO AGENDA
Txapligu taldekoak Gasteizera patinatzerako joango dira zapatuan, eta domekan, argazki rallyko erakusketa egingo dute Arrizuriagan. Txiskrilabikoek eskulanak izango dituzte zapatuan.

URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunasa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiko oindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarretik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolonia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietza, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

'Miserableak' ikuskizuna 4.000 lagunek ikusi zuten

Egundoko arrakasta lortu zuen Musika Eskolak *Miserableak* ikuskizunarekin. 1994ko Errege egunean estreinatutako muntaia 4.000 lagunek ikusi zuten. Taula gainean 135 lagun (musikariak, abeslariak eta antzezleak) aritu ziren. Ikusleek lanaren kalitate handia azpimarratu zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kirrimarria"

Istilua, eztabaida zaratatsua.
—Gaur gabian andra gizonok kirrimarran bat ibillirik izan bia dabe.



HAUGIROA!

MINIMOA Astlehena, 19	1°C
MAXIMOA Eguaztena, 14	14°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	101 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	14°C	1°C	11,7 l/m²
Eguena, 15	13°C	5°C	- l/m²
Egubakoitza, 16	12°C	3°C	8,9 l/m²
Zapatua, 17	11°C	8°C	50,3 l/m²
Domeka, 18	11°C	3°C	24,4 l/m²
Astlehena, 19	8°C	1°C	- l/m²
Martitzena, 20	8°C	2°C	6,1 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO PELIKULAK

'MASTER AND COMMANDER'

ZUZENDARIA: PETER WEIR. AKTOREAK: RUSSEL CROWE.

HARIA. Napoleonen garaian, GMS Surprise ontzi britainiarra eraso dute frantziarrek. Bi ontzien arteko borroka latza izango da.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'SAMSARA'

ZUZENDARIA: PAN NALIN. AKTOREAK: SHAWN KU, CHRISTY CHUNG, NEELESHA BAVORA.

HARIA. Tashi monje budista gaitza Himalaiako ermita baten hiru urte emango ditu. Horren ondoren, Himalaia utzi eta txikitatutako bizitza izango du. Laster gizakien plazaz ezagutzeko aukera izango du, eta bere balioak jarriko ditu zalantzan...

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, urtarrilaren 29an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

BERGARA Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

GIZARTEA/ Gipuzkoako odol emaileen elkarteek aurten 33.000 odol ateratze lortzeko kanpaina jarri dute martxan

Herriko odol emaileek iaz lortutako emaitzak hobetzea dute aurten helburu

EDU MENDIBIL

Odol emaileen elkarteek –Bergarakoak tartean– odol ateratzeak gehitzeko kanpaina jarri dute martxan. Gipuzkoan, aurten, 33.000 odol ateratze lortzea da helburua. Bergarako Odol Elkarteari dagokionez, odol emaile gazteak erakartzea da asmo nagusia.

Bergaran 1967an sortu zuten Odol Emaileen Elkarteak. Azken 30 urteotan Fernando Idigoras dugu elkarteeko delegatua. Hark emardako datuen arabera, 1.459 odol emaile dira Bergaran, horietatik 900 inguru aktiboak, hau da, odola eman dezaketenak. Hainbat arrazoiengatik (haurdunaldi kasuak, berrogeialdian daudenak eta bestelakoak), beste 600 bat lagunek ezin dute orain odolik eman.

Guztira, 66 odol emaile elkarre dira Gipuzkoan, eta, beste herri batzuekin konparatuz gero, Bergara aurreneko tokietan dugu odol ateratzeen kopuruari erreparatuz gero: "1.000 biztanleko ateratzeen ehuneko altua dugu Bergaran. Donostia eta Irunen atzetik, hirugarren herria izango gara, Azkoitiaren parean-edo. Oso pozik gaude azken urteotan lortutako emaitzekin, eta horri eusteko lanean jarraituko dugu. Aurten, Gipuzkoan abian jarritako kanpainan lagundu nahi genuke, 33.000 odol ateratze lortzeko ahalegin horretan, alegia. Gaur egun, odol ateratzeak egiten ditugun bakoitzean, batez beste 65-68 lagun etortzen dira gure lokalera, eta hamabostean behin 75-80 odol emaile etortzea ondo legoke. Urtea ondo hasi dugu: joan zen astean 102 lagun hurbildu ziren, eta horietatik 91k eman ahal izan zuten odola".

ODOLA, URTE OSOAN BEHARREZKOA

Odol emaileek azpimarratzen dutenez, odola ezinbestekoa da bizitza bermatzeko, eta, hori dela eta, derrigorrezkoa da urte osoan ematea odola. Emakumeek hiru aldiz eta gizonek urtean lau alditan eman dezakete odola. Bergarako elkarteak arduradunek lan nekaezina egiten dute: odol ateratzea egokitzen denean, 180 telefono dei inguru egiten dituzte, jendeari odol ateratzea dagoela gogorarazteko. Fernandok zera azaldu digu: "Telefonoz edo helbidez aldatu duten odol emaile askoren datuak gaurkotzen gabiltza, eta, beraz, telefono eta helbide berriak dituztenei gurekin harremanetan jartzeko eskatu nahi diegu, lana errazte aldera". Bestalde, emaile bakoitzari beste bi lagun odol emaile lortzeko eskatzen zaio: emailek ez dago soberan, odol premia handia baitago ospitaleetan urte osoan.



Gaur egun, 1.459 odol emaile daude Bergaran; horietatik 900 inguru aktiboak. Eguaztenean, hilaren 28an, odol ateratzea egingo dute Seminarioko lokalean.

Gazteengana heltzeko ahalegin berezia

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak 18-25 urte eta 26-35 urte bitartean du hutsunerik handiena gaur egun. Joan zen urtean egindako ateratzeak kontuan hartuz gero, 18-25 urteko emaileenak 125 izan ziren eta 26-35 urte bitartekoak 211. Nagusiagok odol gehiago eman zuten: 36-45 bitartekoak 413 ateratze egin zituzten, 64-55 urtekoak 360 eta, azkenik, 56-65 urtekoak 245. Odol emaile gazteak lortzea ezinbestekoa dutela adierazi dute elkarteak

arduradunek, eta, hori dela eta, gazteengana hurbiltzeko ahalegin berezia egingo dute kanpainen.

Horrekin lotuta, Sabin Urtzelai Gipuzkoako Odol Emaileen presidentea Miguel Altunako ikasle talde batekin bildu zen abenduan, gazteen artean emaile izateko behararen kontzientzia pizteko: "Odola egon badagoela esan nahi diegu, baina batzuek ematen dutelako dagoela eta ematen segitu behar dela", dio Urtzelaiak.

Azken urteotan bildutako datuen arabera, odol gutxien martxoan eta apirilean jasotzen dute.

BELDURRA KENDU

Badago odola emateari erreparatu pixka bat dion jendea. Fernando Idigorasen ustetan, gairitu beharreko kontua da hori: "Emaile-

endako eta odola jasotzen dutenendako garantzia osoa dago, kontrol ugari egiten direlako. Ez dago inolako arriskurik, eta jendea trankil asko etor daiteke guregana. Segurtasunari aparteko garrantzia ematen diogu, eta, jakineko denez, hainbat baldintza betetzen ez dituztenek ezin dute

odolik eman, besterik ez. Ezjakintasuna ere badago gai honen inguruan, baina odol emaile egin nahi duenak guregana etorri besterik ez dauka informatzeko eta izan ditzakeen zalantzak argitzeko. Ateak zabalik dauzkagu etorri nahi duten guztiendako. Informatzea da onena".

Azken urteotako datuak

Urtea	Emaile berriak	Ateratzeak
1997	114	1.354
1998	94	1.495
1999	56	1.347
2000	91	1.479
2001	71	1.505
2002	53	1.417
2003	76	1.354

HAMABOSTEAN BEHIN ATERATZEAK


Ohikoa den moduan, odol ateratzeak hamabostean behin egiten dituzte, Seminarioko lokalean, 18:30etik aurrera. Datorren eguaztenean, hilaren 28an, ateratzea izango da eta otsailean bakarria egongo da: 11n, hain zuzen.

Gaur egun, 10 lagun dabilta elkartean, eta boluntario lan paregabea egiten dute: "Elkarteak sortu zenetik oinarriak sendoak izan dira Bergaran. 1967tik hona etenik gabe aurrera egin dugu, eta, neurri handi batean, hasierako arduradunek ondo finkatu zutelako taldearen funtzionamendua. Horri esker, lana asko erraztu zaigu ondoren etorri garenoi", diosku Fernandok.

Donostia, Irun eta Azkoitiarekin batera, odol gehien ematen duen herria da Bergara

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak 1967an sortu zuten, eta gaur egun, 1.459 emaile daude

Odol ateratzeak hamabostean behin egiten dituzte, Seminarioko lokalean



MONIKA BELASTEGI

Liburutegia txiki geratu da aspaldi. Udalaren asmoen artean Arrizuriaga jauregiara eramatea dago.

UDAL LIBURUTEGIA/ Erakusketa aretoan haur liburutegia jarriko dute

Kultura etxeko erakusketa gela liburutegi egingo dute

MONIKA BELASTEGI

Udal liburutegian dagoen toki arazoa dela-eta, kultura etxeko erakusketa aretoa haur liburutegi bihurtzea erabaki du Udalak. Dena dela, aldaketa hori egingo dute Arostegi etxean aurreikusita dagoen erakusketa areto berria egin eta gero.

Udal liburutegian dagoen toki falta dela-eta, kultura etxeko erakusketa aretoa liburutegiari eskaintzea erabaki du Udalak.

Hala, haur liburutegia erakusketa aretora eramango dute. Gaur egun lehen solairuan dago haur liburutegia eta honek lagako duen gela hutsean ikasteko gela bat eta liburuendako apalategiak jarriko dituzte.

Hala eta guztiz ere, aldaketa hori emango da Udalak Arostegi etxeko behe solairuan aurreikusita daukan erakusketa areto berria egokitu ondoren.

ARRIZURIAGARA ERAMATEA AZTERTZEN Urte asko dira liburutegia txiki geratu dela. Horren aurrean due-

la hiru bat urte Udalak esan zuen Arrizuriaga jauregiara eramateko aukera aztertuko zuela; liburutegia Arrizuriagan kokatzeko bideragarritasun azterketa bat egingo zutela, hain zuzen.

Victoriano Gallastegi alkateak esan duenez, asmo hori ez dute baztertu, liburutegia Arrizuriagara eramateko asmoak aurrera jarraitzen du. Bideragarritasun azterketa oraindik bukatzeke dagoela aurreratu du, baina komenigarria dela bukatu eta eskuan izatea, liburutegia jauregiara eramatea erabakitzen denerako.

Urteagako familiendako etxeak hartu ditu Udalak

MONIKA BELASTEGI

Urteaga 29ko familiendako etxeak hartu ditu errentan Udalak. Harri eta lur jausiak direla-eta etxetik atera behar izan zuten azaro amaiera aldera eta hala segi beharko dute beste lauzpabost hilabetez.

Urteaga 29ko familiendako etxeak hartu ditu errentan Udalak; izan ere, oraindik luzerako joko dute mendia eusteko lanek.

Gogoratu behar da, azaro amaiera aldera berriz gertatu zirela lur eta harri jausiak Antzuolara bidean dagoen Eskusarte harrobi zaharrea. Segurtasuna dela-eta, etxetik irten

behar izan zuten bigarren goz-lehenengo aldia iazko maiatzean izan zen arazo berdinarengatik - han bizi diren bost familiek. Horrekin batera, errepidea ere itxi egin zuten ibilgailuendako, eta halaxe jarraitzen du oraindik ere.

LAUZPABOST HILABETE

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Diputatu Nagusiak aurreko astean Antzuolara egindako bisitan esan zuen Diputazioak diharduela lanean arazoa konpondu nahian, baina gutxienez lauzpabost hilabete pasatuko direla mendia eutsi eta Antzuolara bidea zabaltzeko. Izan ere, denbora hori beharko dute mendia ondo lotzeko.



IBILGAILUEK SAHESBIDE BERRIA ERABILI BEHARKO DUTE URTEAGA ZABALDU ARTE.

LABUR

Bai Euskal Herriari taldeak Osintxura eta Angiozarrera zabaldu du EHNA egiteko aukera

Bai Euskal Herriari taldeak jakitera eman duenez, Osintxuko eta Angiozarko auzotarrek ere EHNA egiteko aukera izango dute Bergarara etorri behar izan barik. Osintxun etzi, domeka egongo dira liburutegian, 12:00etatik 13:30era. Han tramitazioa egiteko aukera izango dute bertaratzen diren osintxuarrek.

Bestalde, datorren domekan, otsailaren leian, Angiozarrerako hurreratuko dira. 11:30etik 13:30era Angiozarko saloian egongo dira.

EHNA egin nahi izanez gero, honako dokumentazioa eraman beharko da esandako lekuetara: hiru argazki, errolda agiria (udal letxean eskatu behar da) eta 15 euro.

Bihar gaztetxean jokatu den futbolin txapelketarako izena emateko epea zabalik

Bihar, zapatua, futbolin txapelketa izango da Bergarako gaztetxean 17:00etan. Ikasle Abertzaleak taldearen aldeko txapelketa izango da, eta izena eman daiteke Kortazarren, Arranon, Pol-Polen edo gaztetxean. Txapelketan parte hartzeko 4 euro ordaindu behar dituzte jokalariek.

Udaleko Euskara zerbitzuak kaleratutako egutegia Udalean eskuratu daiteke

Etxeefara banatu duten arren, inork eskuratu ez balu Udaleko Euskara zerbitzuak ateratako 2004 urteko egutegia, Udaletik pasatu besterik ez du egin behar. Udaltzaingoa daude eskuragarri egutegiok.

GIDA
KOMERTZIOEN ETA PARTIKULARREN TELEFONARI

BERGARA

ANTZUOLA

ELGETA

04



Hasi dira 'Gida 2004' banatzen

Dagoeneko hasi dira Goiena Komunikazio kooperatibak kaleratutako *Gida 2004* banatzen. Aste honetik bukatzeke datorren astean barrena jasoko duzue gida zuen etxeetan.

*Gida 2004*k Bergara, Antzuola eta Elgetako intereseko telefono zenbakiak, udaleko zerbitzuen zenbakiak, enpresetakoak, komertzioetakoak eta partikularren telefonoak jasotzen ditu besteak beste.

Gida etxean jaso ezean BERRIGARAN jasotzeko aukera izango duzue.



MONIKA BELASTEGI

Zentimo bateko, biko eta bosteko txanponetan eraman zituzten Udalera isunaren 360 euroak Herri Mugimenduko ordezkariak.

GIZARTEA/ San Martinetan jarritako txosnagatik 360 euro ordaindu behar izan dituzte

Martitzenean ordaindu zuen isuna Herri Mugimenduak

MONIKA BELASTEGI

Eguerdian ordaindu zuen Herri Mugimenduak San Martinetan txosna jartzeagatik Udalak jarritako 360 euroko isuna. Gazte asko joan ziren ordainketa egitera, ezadostasuna adierazteko. Halakorik berriz ez gertatzeko, txosna jartzeko egutegia adostu dute bi aldeek.

Martitzen eguerdian ordaindu zuen Herri Mugimenduak San Martinetan txosna jartzeagatik Udalak jarri zion 360 euroko isuna. Gazte ugari hurbildu ziren Udalera isunarekin bat ez zetozela adierazteko; batzuk gangster jantzita. Izan ere, Herri Mugimenduko kideek azaldu zutenenez, "isunarekin bat ez gatzozela adierazi nahi izan dugu, baina modu sinboliko eta sinpatikoan; horregatik jantzi gara gangster".

Horrekin batera, halako oztopoen aurrean ere aurrera egingo dutela azaldu dute.

URTE OSORAKO EGUTEGIA

Berriz halakorik ez gertatzeko, txosna jartzeko egutegia zehaztu du Herri Mugimenduak Udal arduradunekin. Hala, urtean lau txosna jarriko dituztela azaldu du Herri Mugimenduak: Errege bezperan, Pazkoetan, San Martzialetan eta San Martinetan. Txos-

Halakorik berriz ez gertatzeko, txosna jartzeko egutegia adostu dute bi aldeek

naren kokapena eta bestelako gai teknikoak zehazteko beste batzar bat egitekoak dira.

BILGUNE KONSTANTEA

Gaur egun hamarren bat taldek osatzen dute Herri Mugimendua, besteak beste: Txapa Irratia, Astindu aldizkaria, Gazte Asanblada, KI, Bai Euskal Herriari eta EHE. Dena den, ekimen irekia dela aurreratuko dute eta ateak zabalik dituztela gainerako taldeendako.

Herri Mugimenduak hiru helburu ditu: osatzen duten taldeen arteko elkarlana bultzatzea, elkarlanean finantziario bideak hobetzea eta herriari bizitasuna ematea. Abenduan egindako bileran zehaztu zituzten helburu horiek eta bilgune konstantea izan nahi dutela ere gehitu dute, herriko talde eta kolektiboendako erreferentia izanda.

San Paulo jaiak ospatuko dituzte asteburuan Uberan

MONIKA BELASTEGI

Uberako auzotarrek jaiak ospatuko dituzte asteburuan, San Paulo jaiak, hain justu ere. Ekitaldi ugari izango dira, egubakoitzean hasi eta astelehenera bitartean, tartean, bakailao afaria eta mus txapelketa.

Ubera auzoan San Paulo jaiak ospatuko dituzte egubakoitzean hasi eta astelehenera bitartean. Gaur, egubakoitza, ekingo diete jaiak uberarrek. 20:30ean, bakailao afaria egongo da elkartean, soinu jotzaileek alaituta. Bihar, zapatua, tortilla txapelketa egongo da, 12:00etan, elkarteko baz-

kideendako. 16:00etan, berriz, IV. mus txapelketa egingo dute, eta 16:30ean, kukainak. Kukainen ondoren, txokolatea eta buruhandiak egongo dira hurbiltzen diren umeendako.

Etzi, domeka, meza nagusia egongo da San Paulo ermitan, 10:30ean. 12:00etan, Bergara Kirol Elkarteko eskolako pilotarien partiduak egongo dira, eta 12:30ean, salda eta txorizoa banatuko dituzte hurbiltzen diren guztiendako.

Azkenik, astelehenean, eta jaiak amaiera emateko, 10:30ean, meza egongo da San Paulo ermitan, eta 11:00etan, salda eta txorizoa, elkartean.



ARTXIBOA

Gaur, egubakoitza, bakailao afaria egingo dute elkartean.

LABUR

Datorren zapatuan, otsailaren 7an, bertso afaria egongo da Artatse elkartean

Maialen Lujanbio eta Estitxu Eizagirre bertsolariak hartuko dute parte eta 21:00etan izango da. Txartelak salgai daude Arranon, Pol-Polen eta Kortazarren. Prezioa 20 euro da; eta 12 euro, langabe eta ikasleendako.

Minusbaliatuek ez dute Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga ordainduko

Aurtengo urtetik aurrera, minusbaliotasun egoera egiaztatzen duten guztiak %33koa edo handiagoa ez dute Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga ordaindu beharko, ibilgailua euren izenean badago, Bergaran erroldatuta badago eta hala eskatzen badute. Salbuespen hori ibilgailu bakarrerako egingo dute.

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13



IKASLE GAZTETXOAK DANBORRADAN

Azken urteotan bezala, herriko ikasle gaztettoek San Sebastian eguna ospatu zuten martitzenean. San Martin eskolan (goiko argazkian), Aranzadi Ikastolan (eskuman) eta Mariaren Lagundian (beheko argazkian) danborrada dotoreak prestatu zituzten. Sukaldari txapela buruan, aurpegian bibotea margotu, mantala jantzi eta gogor astindu zituzten danborrak, irakasleen eta gurasoen begiradapean. Donostian eta Azpeitian bakarrik ez, hemen ere ondo baino hobeto jo zituzten Sarriegiren doinuak.




LOKATZAKO ZOZKETA

Asier Etxanizek irabazi du Lokatzak Gabonetan zozketatu-tako bizikleta, 2.473 zenbakiari esker. Argazkian, Jesus Martin i2 dendakoa, Asier Etxaniz eta Jesus Kortabarria "Kaxeta", Lokatzako ordezkaria. Oraindik bigarren sariko txartelaren jabea ez da azaldu: 4.635 zenbakiari Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria tokatu zaio. Adi beraz!

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



MINGAINARITIRAKA

BERGARARRAKMUNDUAN



Kontxi
Prat

BOLINTXO OKINDEGIKO

Kontxi Pratek lau urte daramatza Bolintxo okindegian lanean, Bidekurutzetan. Administrari ikasketak egin zituen, eta Haziendan lanean ibilitakoa da. Oraingoa gustuko lana duela dio. Ezkonduta dago eta hiru seme-alaba dituzte.

Laneko gauzarik onena? Eta txarrena?

Onena, bezeroekin daukagun tratua; txarrena, zenbaitetan lana pilatzen zaigula, lan handia egoten dela.

Lana, goizez ala arratsalde zehar?

Goizez. Arratsalde zehar jai edukita hobeto aprobetxatzen dut eguna. Lanbidez aldatzekotan, zer? Txikitari zer izan nahi zenuen? Ez dut aldatzea pentsatzen. Txikitari? Akordatu ere ez naiz egin zer izan nahi nuen...

Lanean, musika ala irratia?

Musika izaten dugu, hari musikala daukagu-eta.

Asteko egun bat? Urtaro bat?

Zapatua. Urtaroa, uda: oporrak eta eguraldi ona izaten direlako. Eguzkia atsegin dut. Negua ez dut batere gustuko.

Gustuko jantzi bat? Kolore bat?

Jantzi erosoak nahiago; bakeroak, adibidez. Kolorea, urdina.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Lagunekin eta seme-alabekin egotea eta aerobika egitea.

Aste bukaerarako plan on bat?

Eskiatzera joatea ez da plan txarra...

Mendizalea zara? Inguruko mendi bat?

Mendira oso gutxitan joaten naiz. Udalatz gustatzen zait.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?

Los pilares de la tierra (Ken Follet)/Valentino/Eurythmics.

Telebistako programa bat? Eta ikusi ezin duzun beste bat?

CSI jarraitzen dut. Salsa rosa eta horrelakoak ez ditut gustuko, nahiz eta batzuetan ikusten ditudan.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari eta osasunari.

Euskal Herriko txoko bat?

Kostaldea gustatzen zait: Donostia, Zumaia...

Loterian milioi bat euro irabaziz gero, zer?

Donostian etxea erosiko nuke gustura.

Bidaia bat, nora?

Karibera, itsas zeharkaldi bat egitera. Europako hainbat hiri bisitatzeko ere ondo legoke.

MARIASUN LETE

52 URTE / LIBURU DENDA BATEN DIHARDU LANEAN / DONIBANE-GARAZIN BIZI DA

“Lan aukera handirik ez dago, eta oso gazte jende gutxi dago Donibane-Garazin”

EDU MENDIBIL

Basalgoko Lesarri Goikoa baserrikoa jaiotzez, Mariasun Letek 25 urte-tik gora daramatza Iparraldean bizi izaten. Beñat senarra Heletakoa da, eta ezkondutakoan joan zen hara: lehenbizi Pauen bizi izan ziren, bi urtez, eta azken 25 urteak Donibane-Garazin eman ditu. Joan aurretik, lau bat urtez jardun zuen Aranzadi ikastolan, irakasle.

Paueko ikastolan ere ibili zen lanean, baina senarrak lanez aldatzeko aukera izan zuenean, Donibane-Garazira joan ziren. “Ordu-rako gure lehen alaba, Leire, jaiota zen, eta lana uztea erabaki nuen. Ondoren, beste bi alaba izan genituen, Nora eta Uxue”. Leire paisajista da Lyonen, Norak kazetari lanetan dihardu Berriako Baionako erredakzioan, eta Uxue, gazteena, arteari buruzko ikasketak egiten ari da Parisen. Orain dela sei urte lanera itzuli zen Mariasun eta gaur egun, Donibaneko Kukuxka liburu dendan dabil lanean:

“Euskal liburuak geuk bakarrik sal-

“Euskaldunen kopurua nahiko handia da, baina transmisioa biziki eskasa izan da”

tzen ditugu Donibanen, eta nahiko ondo saltzen dugu. Lan polita da eta gustura nabil”. Liburu denda lanaz gain, AEK-ko gau eskoletan lanean jarraitzen du Mariasunek: garai batean irakasle lanak egiten bazituen ere, gaur egun diruzaina da.

Euskarak Iparraldean bizi duen egoeraren gainean ez da oso baikorra Mariasun: “Euskaldunen kopurua nahiko handia da, baina errealitatea bestelakoa da, benetan euskara erabiltzen dutenak horrenbeste ez direlako. Ia-ia pertsona edate-tuek bakarrik dakite euskaraz.

Zoritxarrez, transmisioa biziki eskasa da hemen eta gaur egun haurrak dituzten gura-

soek, 30 urtetik ingurukoek, ez dakite euskaraz eta hizkuntzarekiko kontzientzia txikia daukate. Ikastolek lan handia egin dute, eta euskarak ez duela kalterik ekartzen erakutsi diete herritarrei”.

Hego Euskal Herriarekin konparatuz, Iparraldeko bizimodua oso ezberdina dela dio Mariasunek: “Dendak zazpietan ixten dituzte eta ordurako ez dabil inork kalean. Lanik ere ez dago, eta oso gazte jende gutxi dago Donibanen. Neguan are tristeago egoten dira kaleak. Gainera, Donibane oso txikia da, 1.200 biztanle izango ditu”. Nagusiki zerbitzuetatik bizi dela eta industriarik apenas ez dagoela adierazi digu Mariasunek: “Nekazaritza ere oso inportantea da, %40 inguru. Lurrak duen garrantzia oso kontzienteak dira nekazariak hemen, eta ondo asko defenditzen dituzte beraien interesak. Autobiderrak bat beraien lurraldetik pasako dela ikusten badute, berehala hasten dira mobilizazioetan. Bergara aldean, adibidez, sarraski handiak egin dituzte azkenaldian, baina badirudi inork ez duela protestatzen. Hemengo nekazariak lurra beraien lantzeko nahi dute: lanerako duen balioa eta ekologia asko errespetatzen dituzte”. Bestalde, nekazaritzagatik ez balitz, hango mendiak ez lirakeela hain ederrak izango azpimarratzen du Mariasunek. Izan ere, mendizale amorratuak dira Mariasun eta senarra, eta badute mendi irteerak egiteko koadrilatxoak ere.

Orokorrean bizimodu lasaia egiten dutela esan digu. Ama bizi artean, Bergarara gehiagotan etortzen ziren. Edozelan ere, su-traiak hemen dituela eta gipuzkoarra dela aldarrikatzeko, hango lagun batzuekin urtero San Inazio eguna ospatzen dutela esan digu. San Martineko danborrada ere gogoan dauka: agurtu baino lehen, telefonotik, San Martin Agirreren ereserkiaren zati bat kantatu digu.



EDU MENDIBIL

Orain
eguneko menuak!

ZUHAIZTI
taberna

Otsailaren 2tik aurrera,
astelehenetik ostiralera
eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

KIROLA

Kirolgune berriko lanak martxoan hasiko dituztela adierazi dute Udaleko iturriek


Alvaro Perez de Amezaga eta Jorge Muntaniola arkitektoek landutako proiektuak hiru fase jasotzen ditu, 10.704.200 euroko aurrekontuarekin

EDU MENDIBIL

Udaleko iturrien arabera, martxoan, Agorrosingo kirolgune berria egiteko lanak abian jarriko dituzte. Proiektua dezente atzeratzen ari da, eta Udalak lehenbailehen adjudikatu nahi ditu lehen faseko lanak. Laster, baldintza pleguak kaleratuko dituzte.

Valentin Egidazu kirol zinegotziak BERRIGARARI adierazitakoaren arabera, martxoan hasiko dituzte Agorrosingo kirolgune berria egiteko lanak: "Proiektua adjudikatzeke baldintza pleguak erredaktatzen hasiak gara eta gure asmoa martxoan lanekin hastea da. Badakigu herritar askoren artean egonezina dagoela gai honen inguruan, eta Udala da interesatuena lanekin lehenbailehen hasteko".

Alvaro Perez de Amezaga eta Jorge Muntaniola arkitektoek kirolgune berrirako landutako proiektuan hiru fase zehazten dira. Lehenbizikoan, besteak beste, bi igerileku estali (21x25 m eta 20x5,5 m), aldagelak, gimnasioa, squasherako frontoia, haurtzaindegia eta kafetegi-jatetxea eraikitzea zehazten da. Hasiara batean, lehen faseak 6.915.900 euroko aurrekontua izango du. Egidazuren arabera, "aurten 1.738.990 euro, 300 milioi pezeta inguru inbertituko dira, eta diru



Agorrosingo kanpoko zein barruko instalazioak 2002ko irailean itxi zituzten, eta, gaur egun, kanpoko igerileku txikia erabiltzeko aukera bakarrik dago.

hori, Ibargarain egingo diren etxebizitzaren terrenoen salmentarekin lortuko du Udalak". Alkateak iaz adierazitakoaren arabera, proiektu osoaren aurrekontua 10.704.218 eurokoa da (1.781.032.033 pezeta).

PROIEKTUA, ATZERATUTA

Gogoratuko duzuen bezala, Agorrosingo kanpoko zein barruko instalazioak 2002ko irailean itxi zituzten. Hasiara baten, 2002ko udazkenean hastekoak ziren lanak, baina behin eta berriz atze-

ratuz joan dira: 2003ko urtarrilean, Victoriano Gallastegi alkateak lehen fasea egiteko lanak maiztzean hasiko zirela agindu zuen, baina kanpoko igerileku txikia estaltzea baino ez zen egin aurreko urtean. Artzamendi Eraikun-

tzak enpresak beharrezko egokitzetza lanak egin eta gero, martxoaren amaieran kanpoko igerileku txikia zabaldu zuten. Debagoieneko kirol txartelarekin Arrasate eta Oñatiko igerilekuak erabiltzeko aukera dago egun.

Bergara KEko gazte mailako talde nagusia, denboraldiko bigarren garaipenaren bila domekan

E.M.

Bergara KEko gazte mailako talde nagusia denboraldiko bigarren garaipena lortzen ahaleginduko da domekan, Ipintzan. Bergararrek Zarauzko Antoniano futbol taldea hartuko dute, 11:30ean. Juan Carlos Gomez de Segurak eta Aitor Blancok zuzendutako mutilek ez dute lan erraza izango: zarauztarrak sailkapeneko laugarren tokian dira eta bergararrak, aldiz, azken tokietan ditugu. Joan zen astean denboraldiko bigarren itzulia hasi zen, eta mahoneroek partidu bakarra irabazi dute orain arte. Aurreko jardunaldian Ostadar taldearen aurka galdu zuen Bergarak, Lasarten, 2-0.

Juan Carlos Gomez de Segura entrenatzaileak zera adiera digu: "Gure jokalariek lehenbiziko denboraldia dute aurtengoa gazte mailan, eta adin horietan

asko igartzen da urtebete edo bi urte gehiagoko esperientzia izatea. Gurea kenduta, dagoeneko maila honetan aritutako taldeak dira gehienak, eta talde horiei irabaztea oso zaila da. Hala ere, taldeak maila ona azaldu du eta datorren urteari begira ondo etorriko zaie jokalariei aurten ikasitakoa". Joanekeo partiduan, Bergarak 5-1 galdu zuen Zarautzen Antonianoaren aurka.

BESTE HIRU PARTIDU ASTEBURUAN


Zapatuan, berriz, bi partidu jokatuko dira Ipintzan: alde batetik, lehen erregional mailako taldeak Mutrikuren aurka jokatuko du, 16:00etan, eta jarraian, lehen kadete mailan, Bergarako eta Añorgako taldeak izango dira aurrez aurre.

Bestalde, aurreneko tokietan dagoen infantil mailako taldeak Hondarribiaren bisita izango du domekan, 10:00etan.



Argazkian, lehen gazte mailako futbol taldea.

OLAJA MONDIBIL



ARTXIBOA

Aurtengo Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa Bergaran hasi eta amaituko da apirilaren 5ean.

TXIRRINDULARITZA

Logotipo lehiaketa Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa iragartzeko

Lehen Hezkuntzako herriko ikasleek urtarrilaren 30era arte dute lanak entregatzeko

EDU MENDIBIL

Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa antolatzen dabilen herri batzordeak logotipo lehiaketa deitu du Lehen Hezkuntzako ikasleen artean. Irudi irabazlea Bergaran jokatu den etapa iragartzeko erabiliko dute.

Esan bezala, Lehen Hezkuntzako ikasleek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Lanak urtarrilaren 30era arte jasoko dira herriko ikastetxeetan eta partaideek (bakarka zein taldeka) nahi adina lan aurkezteko aukera izango dute.

ETAPAREN IRUDIA

Edozein formatu eta teknika erabili ahal izango dute gaztetxoek: marrazki, argazki, margo, eskultura... Ikasleek Bergara eta txirrindularitza uztartu beharko dute beraien lanetan. Jakingo duzuenek, aurtengo Euskadiko Itzulia Bergaran hasiko da, apirilaren 5ean. Logotipo lehiaketako irudi irabazlea egun horretako imajina izango da eta, besteak beste, txirrindularien etorrerarekin kaleratuko diren hainbat produktu (kamisetak, metxeroak eta bestelakoak) apaintzeko erabiliko dute.

Epaimahaiaren erabakia

otsailaren 13an emango dute aditzera, eta irabazleak Bergaran amaituko den lehen etapa antolatzaileen auto batean jarraitzeko aukera izango du. Era berean, beste hainbat sari ere banatuko dituzte.

Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa Bergaran hasi eta bukatuko da. Era berean, bigarren etapa Bergaratik abiatuko da apirilaren 6an. Lokatzako eta herri batzordeko kideak Gipuzkoako Federazioko eta Organizaciones Deportivas El Diario Vasco ordezkariekin biltzekoak ziren, atzo, eguna, Bergaran, antolaketa zehazten joateko.

FOTOKIROLA



San Antoneko krosa

Domekan, San Antoneko krosaren 26. ekitaldian, 29 partaide izan ziren eta Zigor Esnaola soraluzetarra nagusi zen, Iker Larrea antzularra eta Jon Arantzabal bergararraren aurretik; emakumezkotan, Maria Jesus Velasco arrasatearrak irabazi zuen eta beteranoetan Santiago Fuertes ermuarra izan zen onena. Jose Luis Fernandez bergararrak (72 urte) sari berezia eskuratu zuen.

JARGAZKIA: OLAIA MONDRAGON.

ESKUBALOIA

Hiru eskubaloitako partida jokatu dira asteburuan Labegarietako kiroldegian

BKEko senior mailako nesken eskubaloitako taldeak San Adrian hartuko du bihar, zapatua, Labegarietan, 16:30ean. Horren ondoren, senior mailako mutilek Elgoibarren aurka jokatuko dute, 18:00etan. Senior mailako Bergarako bi taldeek galdu egin zuten aurreko jardunaldian. Domekan, berriz, infantil mailako nesken taldeak Pulporen aurka jokatuko du, 10:00etan.

KIROLA

Herriko eta Debagoieneko kirol txartelak egiteko aukera Udal Kirol Zerbitzuan

Udal Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, kirol txartelak berrietzeko epea zabalik dago. Herriko instalazioak erabiltzeko txartel indibidualak 94,70 euro balio du (62,80 ikasle eta langabeendako). Familia txartela, berriz, 124,70 eurokoa da bi kideekin eta 132,80 eurokoa hiru edo lau kideekin. Debagoieneko txartela eginez gero, prezioak hauek dira: 78,65 euro (18 urtetik behera), 112,90 euro (18 urtetik gora) eta familia txartelaren kasuan, 157,30 euro.

TXIRRINDULARITZA

Lasterketetarako lizentziak berritzeko epea zabalik Lokatza Ziklismo Eskolan

Lokatza Ziklismo Eskola lasterketetan parte hartu ahal izateko federatu txartelak berritzen hasi da. Interesatuak eguenetan jo dezakete Lokatzak San Martin plazan duen bulegora, 20:00etatik aurrera. Argibideak 619 73 95 07 (Mikel) telefono zenbakian.

PILOTA

Udaberri Txapelketako eta Euskal Ligako partiduak gaur Udal Pilotalekuan

Udaberri Txapelketaren barruan, kadete eta gazte mailetako Bergarako bikoteek Eibarren eta Mundaroren aurka jokatuko dute gaur, Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita. Gero, Euskal Ligan, Bergara-Danak Lagunak senior mailako neurketa izango da.

ESKIA

Pol-Pol Mendizale Taldeak bi eski irteera egingo ditu otsailean, Luzera eta Baqueirara

Pol-Polek bi eski irteera egingo ditu otsailean: hilaren 13tik 15era Luz Ardidenera eta 27tik 29ra Baqueirara. Martxoan, berriz, Formigalera joango dira, 12tik 14ra arteko aste bukaeran. Argibideak Pol-Poleko bulegoan edo 943 76 48 51 zenbakian.

TXIRRINDULARITZA

Errepideko eta mendiko bizikletako lizentziak berritzeko epea zabalik, otsailaren 1era arte

Bergara Txirrindulari Elkarteak aditzera eman du lizentziak (errepidekoa eta mendiko bizikletakoa) berritzeko epea zabalik izango dela otsailaren 1era arte. Kutxan 85 euro ordaindu, eta i2 edo Biciprecision Igartua dendetan aurkeztu behar da agiria.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: De Resaka-Canalejas. **Mongatxurak**
19:00: A Ze Flaxa-TMT. **Dedo Pafarru**
20:00: Dedo Pafarru-Agirreberia. **TMT**

16:00: Argandolas-Fit automocion. **Bedarr.**
17:00: Bedarreta-Egurre. **Fit automocion**

DOMEKAN, BARRUAN

11:30: Ganbara-Torpedo Musakola. **Artus.**
12:30: Artusamak-Fac. **Torpedo**
16:00: SDTNT-Teatekh. **Belengua**
17:00: Komando Piperrak-Belengua. **Teatekh**
18:00: Cosa Nostra-PDS. **Pagomendi**
19:00: Kalaveras-Pagomendi. **Torrekuia**
20:00: Irubide-Torrekuia. **Kalaveras**

ZAPATUAN, KANPOAN

10:30: Mongatxurak-Vervenir. **Canalejas**

DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Totten-Txipiron. **Errotagain**
10:30: Pirulotarrak-Errotagain. **Totten**

AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA/ Aurten hamabigarren urtea bete duen arren, osasun betez dago Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketa

Amodiozko gutunen lehiaketan 111 lagunek hartu dute parte, eta 33k mezu lehiaketan

MONIKA BELASTEGI

Aurreko astean bukatu zen epea Jardun elkarteak antolatutako amodiozko gutunen lehiaketan eta SMS bidezko amodiozko mezuen lehiaketan parte hartzeko. Lehenean 111 lagunek hartu dute parte; bigarrean, 33k. Orain, epaimahaiari dagokio erabakia hartzea.

Jardun elkarteak antolatzen duen Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketaren hamabigarren aldia izan da aurtengoa, eta, ohi bezala, jende askok hartu du parte. Urtarrilaren 8an bukatu zen parte hartzeko epea, eta 111 lagunek bidali dute euren amodiozko gutuna lehiaketara, iaz baino 11 gehiagok.

Batez ere, Gipuzkoatik heldu dira gutunak, baina Bizkaitik, Arabatik, Iparraldetik eta Burgostik ere ailegatu dira. Ohi bezala, emakume gehiagok hartu dute parte gizonezkoek baino: parte-hartzaileen %80 dira emakumezkoak eta %20 gizonezkoak. Adinari dagokionez, 18 urtekoa da parte-hartzaileen adinaren batez bestekoa.

Irabazlearen izena jakiteko pixka bat itxaron beharko da oraindik; epaimahaiko kideek gutunak irakurri, batzartu eta irabazlearen izena erabaki arte. Ohi bezala, lau lagunek osatuko dute epaimahaia: Itxaro Borda idazleak, Nerea Elustondo ber-

*Iazko aldirian baino
11 amodiozko gutun
gehiago jaso dituzte
Jardun euskara
elkartean*

*Urteroko ildoari
jarraituz, aurten ere
emakume gehiagok
hartu dute parte: %80
emakumezkoak dira*

tsolariak, Karlos Linazasoro idazleak eta Iñaki Serrano iazko irabazleak. Lau sari egongo dira: lehengo eta bigarren saria, Bergarako Onenarena eta Gazte saria.

SMS BIDEZKO AMODIOZKO MEZUAK

Amodiozko gutunekin batera, SMS Bidezko Amodiozko Mezuen Lehiaketa jarri zuen abian iaz Jardunek. Sakelako telefonoen ugartzea eta horien erabilera handitzea dela-eta pentsatu zuten elkartekoek lehiaketa abian jartzea. Iaz, lehenengo urtea izanik, arrakasta handia izan zuen, eta aurten ez da gutxiagorako izan: 33 lagunek bidali dute mezua.



Irudian, iazko epaimahaia eta Jarduneko kideak: M.A. Elkoroberezibar, B. Arrieta, E. Arzelus, S. Colina, I. Zaldua eta J. Muguruza

Mezu onena erabakitzekeo epaimahaiari dagokionez, herriko ikastetxeetako hainbat ikaslekin osatuko dute.

JARDUNEK GITARRA IKASTAROA ANTOLATU DU OTSAILETIK AURRERA

Jardun elkarteak gazte sailak gitarra ikastarora antolatu du, eta

izena emateko epea zabalik dago. Ikastaroaren helburuak dira euskal kantak eskaintzea eta ikastea eta euskal giroa suspertzea.

Ikastaroa otsailaren 6an hasiko da eta apirilaren 2an bukatuko da, eta eskolak egubakoitzetan izango dira, 19:00etatik 20:30era bitartean, Arrizuriaga jauregian.

Izena emateko epea otsailaren 2an bukatuko da eta plaza mugatuak direla eman dute aditzaeren antolatzaileek. Hori horrela, izena emateko Jardunek kultur etxean duen bulegotik pasa daiteke edo honako telefono zenbakietara dei daiteke: 943 76 08 00 edo 943 76 36 61.

Jose Manuel Azkueren kontzertua, bihar, organo zikloaren barruan

MONIKA BELASTEGI

Organo Erromantikoaren Nazioarteko V. Zikloaren barruan, bigarren emanaldia izango da bihar, zapatua, San Pedro parrokian. Emanaldia Jose Manuel Azkue oiartzuarak egingo du, 20:00etan.

Bergarako, Azkoitiko eta Azpeitiko udalek antolatu dute Organo Erromantikoaren Nazioarteko V. Zikloa. Guztira hamabi kontzertu osatzen dute ziklo hori, lau herri bakoitzeko. Gurean, bihar, zapatua, izango da bigarren emanaldia, 20:00etan, San Pedro elizan, eta Jose Manuel Azkue oiartzuarak egingo du.

Azkuek Donostiako Kontserbatorioan egin zituen lehen musika ikasketak. Gero, piano, organo, musikologia eta pedagogia musikaleko goi-mailako ikasketak egin zituen AEBetan. Hainbat urtez AEBetan bizi izan ondo-

ren, 1975ean, Euskal Herrira itzuli zen, eta ordutik hona, Donostiako Andre Mariaren Basilika-ko organista titularra da.


Hainbat kontzertutan jo du bakarlarri gisa, eta baita Espainiako Orkestrarekin, Espainiako Telebistaren Orkestrarekin, Euskadiko Orkestrarekin eta Bayonne Cote Basquerekin ere.

UDAL MUSIKA BANDAREN EMANALDIA

Etzi, domeka, emanaldia egingo du Udal Musika Bandak, 12:30ean, Udal Pilotalekuan. Lau obra egingo ditu bandak: Alfredo Glez. Chirlaqueren *Haizepe*; A. Llwebber-en *The Phantom of the opera*; M. Torrovaren *Luisa Fernanda* zarzuela aukeraketa; eta J.W. der Roost-en *Puszta* suitea.

Emanaldiko egitaraua

- 'Preludioa eta fuga hirukoitza, Mi bemolen, BMW 552'(J.S. Bach)
- 'Preludioa, fuga eta bariazioa, op. 18'(C. Frank)
- 'Preludioa eta fuga (1. sinfoniatik), op. 14' ... (L. Vierne)
- 'Allegro cantabile (5. sinfoniatik), op. 42'(Ch. M. Widor)
- 'Cortège et Litanie, op. 19/2'(M. Dupre)
- 'Cantinel (abesti goxoetatik II)'(E. Torres)
- 'Final, Si bemolen'(J.M. Beobide)



Joe Jimenez margolariaren erakusketa

Amaitzear da Joe Jimenez margolariak Nahikari tabernan duen erakusketa. Asteburuaren ondoren kenduko ditu lanak Mendaroko pintoreak tabernako paretetatik.

Formatu erdiko hamar oliok osatzen dute erakusketa, eta mendarorak azkeneko bi urteetan egindako lanaren fruitu dira. /M.B.

E, TXO!

PSIKOMOTRIZITATE ETA MUSIKOTERAPIA IKASTAROA

Hezkide Eskolak antolatu-tuta, bi tailer egongo dira Bergarako UNEDen. Batetik, *Psikomotrizitatea edadedun pertsonekin* izeneko; eta, bestetik, *Musikoterapia edadetuekin* izeneko ikastaroa. Urtarrilaren 31ra arte dago izena emateko epea, Hezkide Eskolara deituta; hona hemen telefono zenbakia: 943 31 14 74.

JESUS OLAIZOLA BIBLIOGRAFIKO BEKA

Gasteizko Sancho El Sabio Fundazioak Jesus Olaizola bekarako deialdia egin du. Bekaren helburua da euskal bibliografiaren gaineko ikerketa egitea. Gaia librea izango da, baina, betiere, euskal kulturarekin lotuta egongo da. Hamar hilabeterako izango da beka hori. Urtarrilaren 30era arte dago eskaerak aurkezteko aukera. Informazio zabalagoa topatuko duzue www.fsancho-sabio.es webgunean edo 945 14 78 00 zenbakira deituta.

GAZTE INFORMAZIO GUNEA, ERROTALDE JAUREGIAN

Gazteekin lotutako informazio zabala eskaintzen dute Gazte Informazio Gunean, Errotalde jauregian. Eguzia eta egubakoitzetan, 16:00etatik 20:00etara egoten da zabalik. Zapatuetan, berriz, 09:00etatik 13:00etara zabaltzen dute.

GIZARTE LAGUNTZAILE POSTUA, URRETXUN

Urretxuko Udalak gizarte ekintza eta osasun arloari dagokion gizarte laguntzailearen lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa deitu du. Eskaerak aurkezteko epea zabalik dago, urtarrilaren 29ra arte.

GUREGAIK/ ALDIZKARIA

'Xirika' gazteendako aldizkaria kalean da

AINTZANE IRIZAR

Gazte talde batek *Xirika* gazteendako aldizkaria sortu berri du. Aurreko asteko egunean egin zuten aldizkariaren aurkezpena, eta otsailaren 5ean argitaratuko dute lehen zenbakia.

"Mundua gazteon begitik" ikusteko gogoarekin sortu dute *Xirika*, aldizkariaren arduradunek aurreko asteko aurkezpenean azaldu zuten moduan. Goizeder Taberna aldizkariako erredakzio taldeko kideak azaldu zuten, gazteendako tresna komunikatibo bat falta zen, eta hutsune hori betetzera dator *Xirika*. "Gazteei zuzendutako prentsa kirolaren,

aisialdiaren eta musikaren gainekoa da, batez ere", gaineratu zuen.

ASTERO, 24 ORRIALDE

24 orrialde izango ditu aldizkariak, eta astekaria izango da. Eguenero, hain zuzen ere, kale-ratuko dute, otsailaren 5ean hasita. Kioskoetan eta gazteak biltzen diren hainbat tokitan (gatzetxeetan, ikastetxeetan...) jarriko dute salgai, 0,50 euroren truke. Bestalde, urte osorako harpidetza egin eta etxean jasotzeko aukera ere egongo da. Azkenik, egubakoitzetan, *Gara* egunkariarekin batera banatuko dute.

Aipatzekoa da, bestalde, euskara hutsez emango duela informazioa *Xirika*-k.



Goizeder Taberna eta Amets Arzallus, *Xirika* aldizkariako erredaktoreak.

LOTSABARIK/ Maite Agirre

"Indonesiako uharteetara joan nahi nuke"

AINTZANE IRIZAR

Azterketetan buru-belarri dabil Maite, eta denbora luzerik ere ez zuen libre; tartetxo bat hartu du, baina, gurekin egoteko. Neska alaia dela esan digu, eta lagun ona izaten saiatzen dela.

• **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**

Gazteendako ekintza gehiago antolatuko nituzke.

• **Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**

Orain ez daukat irudirik; baina, orain dela urte batzuk, ikasgelako guztion argazkia neukan jarrita, txikitan ateratakoa.

• **Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?**

Gran Hermano saio patetikoa iruditzen zait. *Los Serrano* telesaila, berriz, asko gustatzen zait.

• **Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?**

Tamara. Bon Jovi.

• **Zerk amorratzen zaitu?**

Gezurrek, jendea ezkutuan kritikatzek, atzetik gaizki esaka ibiltzek.

• **Zer estimatzen duzu besteengan?**

Lagun ona izatea, beharra daukazunean lagun egiteko prest dagoen jendea estimatzen dut.

• **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

Maitasunari eta lagun onei.

• **Zure bertute bat? Eta akats bat?**

Alaia naiz, eta lagunei laguntzen saiatzen naiz. Baina jenio bizia ere badaukat.

• **Zelan ligatzen duzue gazteok?**

Jaietan saiatzen gara.

• **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**

Jatorra, errespetatzen naue-na, naizen modukoa izanda onartzen nauena eta alaia.

• **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**

Mutil-lagunarekin, Indonesiako uharteetara.



• **Etorkizunerako amets bat?**

Bat bakarrik? Ezkontzea, umeak edukitzea eta lanpostu on bat lortzea.



ADINA: 16 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoa • **ZALETASUNAK:** Pintura, abestea eta lagunekin egotea • **LIBURU BAT:** 'El afinador de pianos', Daniel Mason-ena • **FILM BAT:** 'Leyendas de pasión' • **MUSIKA TALDEA:** Bon Jovi • **KIROL TALDEA:** Reala

TIRABIRAKA/ Joseba Lasa



ZAHARRAK BERRI

Imserso institutuaren bainuetxe programan parte hartzeko izenematea zabalik dago Udaleko Ongizate Zerbitzuan

EDU MENDIBIL

Aurreko urteotan bezala, Imersok bainuetxe programan parte hartzeko aukera eskaintzen die erretiratuei eta pentsiodunei. Hamabi eguneko egonaldiak izaten dira, eta izenematea zabalik dago Udaleko Ongizate Zerbitzuan.


Lan eta Gizarte Gaien Ministerioko Imserso institutuak bultzatzen du bainuetxe programa. Bertan parte hartu ahal izateko baldintzak honako hauek dira: Gizarte Segurantzako erretiratu pentsioduna izatea edo ezintasunpentsioduna izatea, adina kontuan izan gabe. Alargun pentsioa edo besteren bat jasoz gero, berriz, 60 urte beteta izatea eskatzen da. Bestalde, gaixotasun kutsagarriarik edo elkarbizitza normala oztoka dezaketen buru

gaixotasunik ez izatea eta nor bere kasa moldatzea ere beharrezkoa dira parte hartzeko.

BI TXANDA

Esan bezala, 12 eguneko egonaldiak antolatu ditu Imersok eta interesatuek hainbat bainuetxeren artean aukeratu ahal izango dute; tartean, Zestoa, Fitero eta Arnedillokoa. Estatu osoko 60 bainuetxe inguru sartzen dira programan.

Otsailetik abuztura bitarteko txandarako, urtarrilaren 31 baino lehen eman behar da izena, Udaleko Ongizate Zerbitzuan. Irailtik abendura bitarteko egonaldietarako, berriz, izena emateko epea zabalik izango da maiatzaren 7ra arte. Interesatuek Bergarako Udaleko Ongizate Zerbitzura (943 77 91 65 telefonoa) jo dezakete argibide eske. Bigarren txandako egonaldiak zertxobait garestiagoak dira.



Erretiratuek Estatu osoko bainuetxeak izango dituzte aukeran egonaldiak egiteko.

Appaldek pentsio duinen aldeko sinadura bilketa egingo du bihar

E.M.

Pentsionisten eta aurrez erretiratuen Appalde Debagoieneko elkarteak pentsio duinen aldeko sinadura bilketa egingo du bihar, zapatua, Bergaran. Sinadurak jasotzeko mahaiak Zurraderon eta San Martin plazan jarriko dituzte, 10:00etatik 13:00ak bitartean. Alargunen pentsioen kasuan, gutxienez hileko 600 eurokoa izatea eta erregulazio-inarriaren %70 aplikatzea eskatzen dute. Aurrez erretiratuei dagokienez, 65 urtetik gorakoek %100 jasotzea eskatzen dute, 35 urtez kotizatu dutenen kasuan.




ARTXIBOA

Legediak aurrez erretiratutakoak baztertzen dituela salatzen du Appaldek.

Regino Valle bergararra Appaldeko kidea dugu. Hark esan digunez, orain arte 1.000 sinadura jaso dituzte Bergaran: "2.200

sinadura lortzea da gure asmoa. Estatu mailan jasotako sinadura guztiak Senatuan aurkeztuko ditugu martxoan".



Erretiratuen elkartearen gaineko liburua

Evolución del hogar del jubilado en el contexto social de Bergara. 1972-2002 liburua salgai dago oraindik erretiratuen egotzan, bost euroren truke. Bergarako erretiratuen elkarteak 1972tik hona izan duen ibilbidea jasotzen da. Liburuak 249 orrialde dauzka, eta argazki dezente azaltzen dira.

IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrialia
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da San Juango baserri honen izena?

GALDEDEBALDE

1.

Zein urtetan sortu zuten Bergarako Odol Emaileen Elkarteak?

- A/ 1971n.
- B/ 1966an.
- C/ 1967an.

2.

Zein herritan hasiko da aurten Euskadiko Txirrindulari Itzulia?

- A/ Hondarribia.
- B/ Bergara.
- C/ Urretxu.

3.

Nola du izena pentsionisten eta aurrez erretiratuen Debagoieneko elkarteak?

- A/ Nagusilan.
- B/ ICTE.
- C/ Appalde.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ITZIAR USANDIZAGA endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Itziar! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa, Bidekurutzetan; eskumakoa, Barrenkalen / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Maravilla lentejak

Kiloko kaxa

1,39 €

231 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK


Kruz Gallastegi (eta 2)

KOLDO PEREIRA

Ameriketatik bueltan Coruñan lehorreratu zen, Bergarara itzuli eta senideekin berriz elkartzeko asmoz. Baina Monforteko geltokian Juan Lopez Suarez adiskide minarekin topo egin, eta berarekin Madrilerako joateko konbentzitu zuen, Santiago Ramon y Cajalekin eta Jose Castillejorekin hitz egingo zutela eta. Garai hartan sortu zen Lopez Suarezek eta Santiagoko Herriaren Adiskideen Elkarte Ekonomikoak bultzatutako Ikerketa Zentroa, gero Galiziako Misio Biologiko izan zena. Kruz Gallastegi misioko zuzendaria izan zen, eta handik lau haizetara zabaldu zuen bere jakituria, eta nekazaritza-egitura atzeratuak eraldatu egin zituen. Albaitaritza ikasteari ekin zion, eta bi urtean amaitu zituen ikasketak, nota bikainekin.

Nazioarteko biltzar ugari hartu zuen parte. Nekazaritzako Merituaren Ordenako Zaldun titulua zuen eta 1946an, Alfontso X.a Jakitunaren Ordenako Gurutze Handia eman zioten. Jaioterria lau haizetara zabaldu zuen Gallastegik. 39 urtez gidatu zuen Misio Biologikoan hil zen, 1960ko ekainaren 7an.


1946an, Alfontso X.a Jakitunaren Ordenako Gurutze Handia eman zioten



ARTXIBOA

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68


ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.



BERGARA
Jose Angel Bernier
Urtarrilaren 26an, 22 urte.
Urte askotarako!
Kafeko neskak.



BERGARA
Jokin Alfaro
Urtarrilaren 24an, 7 urte.
Urte askotarako!
Peio eta gurasoak.



BERGARA
Bea Coranti
Urtarrilaren 20an, urteak.
Zorionak! Etxekoak,
bereziki, Maitane eta Josu.



BERGARA
Andoni Mujika
Urtarrilaren 22an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Unai Nogales
Urtarrilaren 23an, 8 urte.
Urte askotarako!
Boluko lagunak.



BERGARA
Irati Rodriguez
Urtarrilaren 23an, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Paloma Nuñez
Urtarrilaren 21an, 9 urte.
Urte askotarako!
Amaren partez.




BERGARA
Elene Sasieta
Urtarrilaren 22an, 8 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Ariana.



BERGARA
Ander Gallastegi
Urtarrilaren 26an, 7 urte.
Urte askotarako!
Asier, Jokin eta gurasoak.



BERGARA
Peio Alfaro
Urtarrilaren 30an, 11 urte.
Urte askotarako!
Jokin eta gurasoak.



BERGARA
Alex Elgezua
Urtarrilaren 22an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Julen Garmendia
Urtarrilaren 19an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Beñat Uribesalgo
Urtarrilaren 25an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki Karmele.



BERGARA
Amaia Etxaniz
Urtarrilaren 22an, 5 urte.
Urte askotarako!
Zorionak! Eider eta Xabier.



BERGARA
Ibon Etxabarri
Urtarrilaren 29an, 6 urte.
Urte askotarako!
Julen, Eider eta Ainhize.



BERGARA
Jon Larrañaga
Urtarrilaren 28an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki Gorka.



BERGARA
Kelly Valor
Urtarrilaren 24an, 9 urte.
Zorionak! Etxekoak,
bereziki Cheyenne.



BERGARA
Nagore Iñurrategi
Urtarrilaren 21an, 26 urte
Zorionak! Labegarietako
gasteria eta familiakoak.



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN

Irala 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 23a / 186. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Asteburuan irekiko dute Espainiako gerraren gaineko erakusketa, Olaranen

AINTZANE IRIZAR

Espainiako gerraren gaineko ekitaldi sorta antolatu dute datozen bi asteburuetarako. Batetik, gerraren gaineko erakusketa jarriko dute; bestetik, Joseba Tapiak kontzertua egingo du domeka arratsaldean. **Agur Intxorta maite** diskoa aurkeztuko du.

Atzo, eguna, hasi zituzten Espainiako gerraren gaineko ekitaldiak. Hitzaldia egin zuen Aranzadi zientzia elkarteko Juantxo Agirrek, Olaran etxean.

Bihar, zapatua, Espainiako gerraren gaineko erakusketa zabalduko dute Olaran etxean. Zapatuan eta domekan, eta hurrengo asteburuan, urtarrilak 31 eta otsailak 1, egongo da erakusketa hori zabalik; 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara zabalduko dute.

Erakusketa horretan, bat egingo dute bi erakusketak: batetik, Sabino Arana kultura elkargoaren *¡Nunca mas! Gerra irudiak 1936-1939* erakusketa izango dugu; eta, bestetik, Debagoieneko Fusilatuen Lagun eta Senideak taldearen *Hazia erein zenutenoi* izeneko erakusketa.

Azken erakusketa horren helburua da Debagoieneko herrietako ehundik gora fusilatuen "ordain morala eta errekonozimendua aitortzea", antolatzaileen esanetan. Horrela, hainbat muraletan, fusilatutako debagoiendarren argazkiak eta datu biografikoak jasotzen dira.



Debagoieneko hainbat herritan egon da Espainiako gerraren gaineko erakusketa.

Sabino Arana elkargoaren erakusketan, berriz, gerrako irudiak batzen dira, batez ere, hainbat idazle, pentsalari eta lekukoen idatziekin batera.

Bestalde, Antzuolako EAJ-ren materialarekin osatu nahi izan du erakusketa Udalak; horrela, besteak beste, Simon Arrietak egindako oihala, Emakume Abertzale Batzaren eta Batzokiko Ikurriak eta argazkiak jarriko dituzte ikusgai. Eta *¡Nunca mas! Gerra irudiak 1936-1939* liburua erosteko aukera egongo da.

Gerrako kantuz osatutako diskoa aurkeztuko digu domekan Joseba Tapiak

Dagoeneko egon da Debagoieneko hainbat herritan Antzuolara orain iritsi zaigun erakusketa bikoitz hori.

DOMEKAN, JOSEBA TAPIAREN EMANALDIA
Ekitaldi sorta hori osatzeko, etzi, domeka, Joseba Tapiaren emanaldia izango dugu, herri ikastetxe aretoan, 19:00etan.

Hantxe, *Agur Intxorta maite* diskoa aurkeztuko du Tapiak, Espainiako gerrako 20 kantuz osatutakoa. Koldo Izagirre idazleak eta Tapiak berak ikerketa sakon baten ondorioz berreskuratutako kantuak dira guztiak. Egileen esanetan, "herri baten malkoak, ilusioak eta askatasun egarria erakusten dute kantuok".

LABUR

Oihulari Klown-eko ipuin kontalaria, Udal Liburutegian

Bihar, zapatua, Oihulari Klown taldeko ipuin kontalaria izango dugu, Udal Liburutegiak antolatuta. Arratsaldeko seietan izango da emanaldia, liburutegian bertan. Abendurako antolatuta zegoen arren, ekitaldia urtarilerara atzeratzea erabaki zuten arduradunek.

Pentsioen gaineko hitzaldia antolatu dute erretiratuek

Eguenean, hilak 29, aurreju bilazio eta alarguntza pentsioen gaineko hitzaldia egingo du Appalde elkarteko Felipe Igartuak, 18:00etan, Olaran etxean. Erretiratuen elkarteak antolatu du berbaldi hori. Aipatzekoa da, bestalde, las-ter hasiko direla sinadurak batzen, pentsio duinen alde.

Aratusteetarako entseguak, martitzenetan

Aratuste-domekan, otsailak 22, dantzara irtengo dira Oinarinekoak eta nahi duten herritar guztiak. Txarri dantza egingo dute aurten. Dantza taldekoekin parte hartu nahi dutenek martitzeneko izango dituzte entseguak, 20:00etan. Eguzki auzoko lokalean.

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

**LEKY-BERRI
MERENDEROA**

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

KIROLA

Kadeteek jarraituko duten edo ez oraingo astean erabakiko dute

AINTZANE IRIZAR

Kadete mailako futbol taldeak aurrera jarraituko duen edo ez zalantza zuten kirol elkarteko arduradunek. Eguazten iluntzean behin betiko erabakia hartzekoak ziren. Gazte mailako taldeak, berriz, kopako fasea jokatzeari ekingo dio asteburuan.

Kadete eta gazte mailako taldeak jokalarik justuekin ibili dira denboraldia hasi zenetik. Kadete mailako sei bat jokalarik, gainera, gazte mailako taldearekin jokatu behar izan dituzte partidu asko, taldea osatzeko jendea falta zelako. Kadete mailan, berriz, infantilak ibili dira.

Hala, hasiera doan bigarren fasean ez dute horrela jarraitu nahi kirol elkarteko arduradunek. Horregatik, kadete mailako taldea desegiteko aukera mahai gaineratu dute. Eguazten iluntzean (gure erredakzioa itxi eta gero), aurrera jarraitu edo ez, erabaki horixe hartzekoak ziren.

Gazte mailako taldeak, berriz, bigarren faseko lehen partidua



Erregional mailako taldeak igoera fasea jokatzen dihardu.

jokatuko du oraingo asteburuan, Oreretan, Beti-Ona taldearen aurka. Kopa jokatuko dute gazteek.

Erregional mailako taldeak igoera fasean sartzea lortu du aurten, eta oraingo asteburuan jokatuko du fase horretako hiru-

garren partidua. Lehenengoa 3-0 irabazi zuen, Behobiaren aurka. Bigarra, berriz, 2-1 galdu zuen Urnietan.

Nesken taldea, berriz, azkeneko postuan dago, jokatutako 13 partiduetatik 12 galduta.



Kontzertu jendetsua, txistulariena

Udaletxeko osoko bilkuren aretoa bete-bete egin zen domeka eguerdian, txistulari taldeak antolatutako kontzertuan. Ehun bat lagun egon ziren. Txistulari taldeak berak, Antzuolako abesbatzak eta Bergarako metal boskoteak egin zuten emanaldia. Txalo zaparrada luzeak jaso zituzten musikariek, eta gustura irten zen jendea osoko bilkuren aretotik./A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urtarrilak 24

16:00: Antzuola-Lagun Onak (Erreg.)

Urtarrilak 25

12:00: Antzuola-Bergara (Neskak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Urnietan 2 Antzuola 1 (2. erreg.)

Zumaia 8 Antzuola 1 (Neskak)

HERRITARREN HITZA / Kontxi Laskurain · Dendaria

Guraso-irakasle: ulermena beharrezkoa

Antzuolako eskolarekin 20 urteko harremana bukatu berri dut eta aukera hau aprobetxatuz irakasleei eskertu nahi diet gure seme-alabak hezteko lan eder honetan eman diguten laguntza.

Azken bi urte hauetan PAUSOKA gurasoen elkartearen egon naiz eta ikusten dut irakasle eta gurasoen arteko harreman on horretan atzera pauso bat eman dela. Hau da, Antzuolako eskolan daukagun hezkuntza metodo edo filosofiak, konstruktibismoak, bere oinarri garrantzitsu bat izan du umeak eskolaratzeko prozesu berezian; horrek, txoke egiten

du guraso askok gaur egun daukan ordutegi eta beste arazo batzuekin.

Ez naiz aditua ezertan, bakarrik edadeak ematen didan esperientzia daukat, baina gai honi buruz zerbait esan nahi dut.

Gizarte osoak, heziketa dela eta, asko presionatzen du eskola, baina uste dut enpresak ere gehiago presionatu behar ditugula, umeak ditugun garaian erraztasun gehiago izateko. Edadetuok



“Enpresak ere gehiago presionatu beharko genituzke”

guraso gazteagoei esaten diegunean “disfrutatu ezazue ahal den gehien zuen seme-alabekin”, esan nahi diegu atzera bueltatzeko aukerarik izango bagenu garrantzia gehiago emango geniekeela seme-alabei eta gutxiago lanari.

Hezkuntzako aditu denek esaten dute jaio eta lehenengo hiru urteak garrantzitsu eta zerikusirik handia daukatela euren garapen afektibo eta emoziona-

lerako. Eta, kontuan hartuta gure seme-alabak 100 urte biziko direla, uste dut, merezi duela ahalegin berezi bat egitea etapa horretan, batez ere.

Antzuolako irakasle batek esana da: “irakasleen lana da ingurune hezitzailea sortzea”; hori lortzeko gurasoak gehiago eta hobeto informatu behar dira eskolaren metodologiak.

Ume zaintza zerbitzu bat, ordutegi zabal batekin, komeni da gure herrian, baina gurasoak ere kontuan hartu behar dugu irakasleen aholkua, gure umeak psikikoki ere ondoen hezteko eta ez bakarrik gauza material ugari emanda.

Harizki

SUKALDEKO ALTZARIAK

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004ko urtarrilaren 23a / 170. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



San Sebastian kofradia 35 elgetarrek osatzen dute, eta urtero elkartzen dira urtarrilaren 20an.

San Sebastian kofradiak, urtetako usadioari eutsi

IRATI AGIRREAZALDEGI

San Sebastian eguna ospatu zuten izen bereko Elgetako kofradiako kideek urtarrilaren 20an. Mendetako ohiturari jarraituz, urtero bezala, lehenengo meza egin zuten parrokan eta ondoren, batzarra. Eguna biribiltzeko, bazkaria izan zuten.

San Sebastian kofradia Errege Katolikoaren garaian sortu zen. Orduan, jauntxoei eta lur jabeek armak izateko ahalmena eman zieten, herria lapur eta kontrabandisten aurrean defendatzeko. Noble haiek osatu zuten kofradia, eta gaur egun ere bizirik dirau.

Garai batean elkarteko kideak jauntxoak baziren ere, gaur egun, haien lurrak edo baserriak erosi zituztenak edo haien oinordekoak dira San Sebastian kofradiako partaideak; guztira 35 lagunek osatzen dute. Kide berriek, beraz, ez lukete lekurik izango elkarre horretan, baldin eta norbaitek lekua utzi eta bere orde zeneren bat sartuko ez balitz, behintzat.

Kideak ez ezik, denborarekin ohiturak ere aldatu egin dira. Lehen, Maalako ermitan egiten zuten meza, eta herritarrendako ikuskizun bat izaten zen. Prozesioa egiten zuten: jantzi dotoreak eramaten zituzten soinean eta kandelontziak eskuetan.

Horrez gain, hainbat arau bete behar zituzten. Esaterako, kofradiako kide bat hiltzen zenean, gainontzekoak behartuta zeuden mezara joatera eta baita bederatziruenera ere.

Bestalde, guztiek zuten urteroko mezara, batzarrera eta bazkaria joateko obligazioa. Ez joateko pisuzko arrazoiren bat eman edo ordezkoren bat bidali ezean, isuna ordaindu behar zuten.

Baina pixkanaka galdu egin

Errege Katolikoaren garaian sortu zuten kofradia nobleek eta lurren jabe ziren jauntxoek

dira ohitura zaharrak eta orduan kofradiak zuen zentzua. Azken urte hauetan, urteroko meza, batzarra eta bazkaria bakarrik egiten dituzte.

Hiru taldek osatzen dute kofradia, eta, urtero, urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean, meza egiten dute. Bertan, elkarteko kideek bereziki prestatutako santuaren omenez ereserkia abesten dute. Ondoren, sakristian batzarra egiten dute kide guztiek. Bertan, kofradiako partaideen zerrenda irakurtzen dute, kontuak egiten dituzte eta talde bakoitzeko ordezkarien aldaketa egiten dute.


BAZKARIA

San Sebastian eguna asteguna izan arren, jai kutsua eman nahi izaten diote urtero kofradiako lagunek; horregatik, bazkari batekin biribiltzen dute ospakizuna. Orain, jauntxorik ez dago kofradian, eta garai bateko arropak, kandelontziak eta gainontzeko tresnak desagertu egin dira. Dena dela, usadioaren parte bati eusteko bada ere, aurten, berriz ere elkartu dira San Sebastian kofradiakoak.

LABUR

Elgetan eta Eibarren Espainiako gerrak izan zuen eragina jasoko dute liburu baten

Jesus Gutierrez eibartarrak Espainiako gerrari buruzko liburu bat egiteko proposamena aurkeztu zuen Udalean, eta Kultura batzordean proposamena onartzea erabaki dute. Gutierrez hasia da jadanik informazioa jasotzen eta aurki ekingo dio liburu gertatzeari. Liburuan, gerraren etapa ezberdinak jasoko ditu eta, Elgetakoak ez ezik, gerraren nondik norakoak Eibarren ere azaldu nahi ditu. Liburu aurtan amaitzekoa zen Gutierrez, baina proiektua Udalak orain onartu duenez, datorren urtera arte ez du bukatuko.



Goibeko, loteriako dirua banatzen

Goibeko kultura elkarteak loterian irabazitako dirua banatzen dihardu, guztira 6.000 eurotik gora. Lehenengo bi egunetan laurden bat eman dute, gutxi gorabehera. Hala ere, jende askok dirua Goibekorendako laga du. Bestalde, gogorazi nahi dute otsailaren 14ra bitartean, bariku iluntzeetan eta zapatu eguerdietan oraindik kobra daitekeela loteria.



BOLINAGA
METALAK

**SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01**

ELKARTASUNA

Uste zena baino janari gehiago batu dute Saharako errefuxiatuen alde egindako elkartasun kanpaina

I.A.

Gosez hil nahi gaituzte izenburuean, saharar errefuxiatuei laguntzeko kanpaina abiarazi zuten. Urtarrilean, oinarriko elikagaiak eta dirua jaso dituzte; eta, kanpainaren bultzatzaileen esanetan, uste zutena baino kopuru handiagoa batu dute.

Gipuzkoako hainbat herritan bezalaxe, *Gosez hil nahi gaituzte* lelopean kanpaina ipini zuten abian Elgetan ere. Saharar Errepublikaren Demokratikoaren Lagunen Elkarteak antolatu du kanpaina, eta helburu nagusia da Aljeriako basamortuan bizi diren errefuxiatu sahararrei, jatekoen bidez, laguntza ematea eta elkartasuna adieraztea.

Urtarrilean elikagaiak eta dirua batzen ibili ostean, aste honetan bertan amaitu da laguntza emateko epea, eta Elgetan plangintza horrek oso erantzun ona izan du. Hasieran uste zutena baino janari gehiago batu dute.

Eskolara Komite Internazionalisten bitartez iritsi zen kanpaina parte hartzeko proposamena. Ikasleek ikastetxera ber-

tara eraman dituzte jatekoak, eta gainontzeko herritarrek, berriz, zenbait dendatan laga dituzte. Kanpaina hori bultzatu dutenen gomendioari jarraituz, batik bat azukrea, lekariak, zerealak, pasta, olio eta atun latak jaso dituzte Elgetan.


UDALAREN DIRULAGUNTZA

Jatekoekin ez ezik, sahararrei diruz laguntzeko aukera ere eman diete herritarrei.

Udalean, esaterako, asteon egin den Osasun eta Gizarte Ongizate batzordeko bileran, Kanpaina horretarako laguntza ekonomiko emateko proposamena atera zuten mahai gainera. Proposatu zuten diru kopuruak orain Gobernu batzordearen oniritzia jaso beharko du, asmo horretan aurrera egin edo ez erabakitzeko.

Jasotako janaria

ZER	ZENBAT
Azukrea	20 kg.
Arroza	45 kg.
Lekaleak	40 kg.
Pasta	15 kg.
Olio	20 l.
Atuna	15 kg.



Aljeriako basamortuan bizi diren errefuxiatu sahararrendako da janaria.

KIROLA

Frontoiko arautegia gertatzen dihardute

I.A.

Udaleko Kirol batzordeak pilotalekuko arautegi berria gertatzen dihardu. Horretarako, hainbat arau zehaztu dituzte, eta, herritarrek ikusi ostean, euren ekarpenak eta aldaketak zehazteko aukera izango dute. Horretarako azken eguna otsailaren 13a da.

Udal Pilotalekua herritarrek erabiltzeko hainbat arau beharrezkoak zirela ikusita, Kirol batzordeak frontoiaren inguruko hainbat zehaztapen idatzi ditu, eta orain, jendaurrera aterako ditu.

Besteak beste, arautegiak argituko du frontoian argia noiz ipini behar den, erreserbak noiz, nola eta non egin behar diren eta frontoia zein ordutan eta zertarako egongo den zabalik. Eta pilo-

tailekuaren garbiketaren eta kontrolaren inguruko hainbat zehaztapen ere jasoko ditu.

Behin-behineko arautegi bat gertatu badute ere, herritarrek irakurri eta euren ekarpenak egin ostean, behin betiko araudia idatziko dute otsaileko batzordearen bileraren ondoren. Horretarako, otsailaren 13a baino lehen, interesatuek udaletxera jo beharko dute araudia jasotzera.

DIRULAGUNTZAK

Pilotalekuaren gaia, esan bezala, Kirol batzordean landu zuten, baina ez zen gai bakarra izan. Beste hainbat artean, 2003an herriko kirol taldeei emandako dirulaguntzez egin zuten berba.

Ozkarbi elkarteko pilota sailak iaz 3.188 euro jaso zituen eta Txirrindulari taldeak, berriz, 3.970 euro.



San Sebastian bezperan danborrada eskolako patioan

Uztailen jaietan izaten da danborrada herrian, baina aurten, eskolako txikienak aurreratu egin dira. San Sebastian egunaren bezperan, eskolako patioan irten eta Donostiako martxaren eta Tatiagoren doinuen erritmora danborrak gogor astindu zituzten, sukaldari txapela eta mantala jantzita. Gurasoak eta eskolako beste ikasleak izan ziren begira./I.A.

Patxi Taberna

• Bokata goxoak • Plater konbinatuak
• Espezialitatea: Tripakiak

Salbador, 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

Jesus Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19
**KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Acero futbol
taldea, 1976.
urtean

Garai batean Seminarioan jokatzen zen adin mugarik gabeko futbol txapelketako argazkia duzue eskumakoa. Acero futbol taldeko lagunak dituzue, 1976. urtean. Antza, urte hartan Acero eta Oilo Kale taldeak iritsi ziren finalera. Partidu lehiatsua izan zen, eta azkenean, Oilo Kalek eraman zuen txapelketa kopa, Acerori 3-2 irabazita. Hamalau talde inguru lehiatu ziren 1976ko txapelketan.

Finalaren atarian ateratako argazkia da, eta jokalarien atzean Ikurrina ikusten da. Ezkerretik eskumara, zutik: Javier Iturbe, Jose Ignacio Pombar, Fernando Amasorrain, Mariano Jauregi, Enrike Olabide eta Iñaki Lazpiur

Makurtuta: Ramon Arietaleanizbeaskoa *Uritxa*, Felix Idigoras, Jesus Mari Arruabarrena, Jesus Ignacio Unamuno *Piti* eta Jose Ignacio Iarduia *Sarti*.

Oso jokalaria onak zituén Acero taldeak. Horren lekuko, *Piti* Unamuno Almeria eta Atletico Madrileño taldeetan jokatu zuen eta Valentziarekin fitxatzeko zorian izan zen. Probetan ibili zen arren, azkenean ez zuen fitxatu Valentziak. Iturbe, Pombar, Amasorrain, Olabide eta Uritxa, berriz, Bergarako talde nagusian ibilitakoak dira, hirugarren mailan.

Argazkia: Jesus Arruabarrena

**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

SANTOS

Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

**POL-POL**
Taberna

943 76 07 78. Bergara

DixulaBOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95



943 76 20 61
BERGARA

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ganbarra
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75

2003-2004 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza:

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE maila guztiak.

EGA eta EGAtik gorakoa.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNetarako prestakuntza.

Egokitutako taldeak:

Guraso, merkatari, enpresa, etab.

MULTIMEDIA gela.

Erritmoak:

Eskarien arabera erritmoak. Galde ezazu!

Bulego ordutegia:

Goizez: 08:30-13:00 • Arratsaldez: 14:30-18:30.

Matrikulatzeko epea:

Urtarrilaren 19tik 30era.

16 urtetik gorakoentzat.

Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.



neguan berotasuna beharko duzu... euskara beti!



BERGARAKO Udal Euskaltegia

www.udaleuskaltegiak.net

BERGARAKO Udal Euskaltegia • Zabalotegi 13 • 20570 BERGARA

Tel./Faxa: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

berg.euskudal@euskalnet.net

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7


• Orotariko pintaketa lanak

J.M. IZAGIRRE

Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

• Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza



Aribar pol. C-4,
S. Juan auzoa
943 76 02 78
F 943 76 53 34

• Pintura
• Dekorazioa

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

• Orotariko arotz lanak
• Sukaldeak
• PVC leihoak

BERGARA

Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

• Orotariko pintaketa lanak
• K-21 agiria




UGARTE

ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

• Orotariko arotz lanak
• Apainketa, zoruak, leihoak, atearak





TXINTXAUN!

Ibarreko neska-mutikoak protagonista

Goitb
Goiena Tebista

**Ikusiko
duzu!**

TXINTXAUN
Laguntzaileak:
Aquarium, Erein, Eroski Bidaiak, Yelmo Cineplex
Babeslea: **EROSKI**

Eguazteno,
20:30ean

Aurkezlea:
Mikel Aranburu